

## **EBALUAZIO IRIZPIDEAK-NATUR ZIENTZIAK.**

1. Ea gidoi bat oinarri hartuta ikerketak, laborategiko praktikak edo landa- azterketak egiten dituen, metodologia zientifikoa aplikatuz, eta ea haien garapena balioesten duen eta emaitzak interpretatzen dituen.
2. Ea lan zientifikoaren berezko estrategiak aplikatzen dituen zereginak eta proiektuak egitean.
3. Ea ezagutzen eta hautatzen duen laborategiko oinarrizko materiala, eta ea behar bezala erabiltzen duen.
4. Ea tresna digitalak eta Internet erabiltzen dituen, informazioa kudeatzeko eta esperimentu birtualak egiteko, programa eta aplikazio digital egokiak erabiliz eta behaketatik lortutako datuak integratuz, eta emaitzak jakitera emateko.
5. Ea lotzen dituen ideia zientifikoak aurrerapen teknologikoekin eta beste arlo batzuekin, eta ea ohartzen den bizi-kalitatearen hobekuntza dakartela.
6. Ea identifikatzen eta kokatzen dituen gizakiaren bizi-funtzioetan parte hartzen duten organo, aparatu eta sistema nagusiak, ea badakien zer lotura duten elkarren artean, eta ea erlazionatzen duen haien funtzionamendua osasun-ohitura jakin batzuekin.
7. Ea barneratzen duen zer-nolako arriskua dakarten eguneroko bizitzan norberaren ongizatea edo osasuna kaltetu dezaketen jokabideek, hala nola  
  
drogen kontsumoak edo portaera-mendetasunak sor ditzaketen jokabideek, eta ea saihesten dituen.
8. Ea azaltzen dituen izaki bizidunen arteko erlazioak, haien egiturak, oinarrizko ezaugarriak, funtzioak eta habitatak aztertuz.
9. Ea identifikatzen eta deskribatzen duen zer portaera duten gorputzek argiaren, elektrizitatearen, magnetismoaren, beroaren eta soinuaren eraginpean, ea azaltzen dituen materialen fenomeno fisikoak eta kimikoak, esperimentu edo ikerketa soilak eginez, eta ea emaitzak jakitera emateko tresna egokiena aukeratzen duen.
10. Ea bereizten eta aurreikusten duen zer aldaketa gertatzen diren gorputzen higiduran, forman edo egoeran indarren edo energia-ekarpenen eraginez, esperimentu edo ikerketa soilen bidez, eta ea prozesua eta emaitzak modu egokian jakitera ematen dituen.
11. Ea proiektu teknologiko bat egiten duen, aurrez planifikatuta, objektuak eta tresnak eraikitzeke, energia-iturriak erabiliz eta eragile nahiz material egokiak aukeratuz, eta ea baliatutako estrategiei buruzko informazioa ematen duen.
12. Ea gizakiaren jarduerak natura-ingurunean duen eragina azaltzen duen, argudiatuz, adibideak emanez eta haren efektuetako batzuk deskribatuz, eta ea ondorioak ateratzen dituen.

# 1. MAILA

<b>1. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-1. MAILA</b>
<b>LORPEN-ADIERAZLEAK</b>
Ea gorputzeko eta aurpegiko atal nagusiak zein diren badakien eta esaten dituen.
Ea bost zentzumenak zein diren badakien.
Ea ohitura osasungarriak identifikatzen dituen: garbitasuna, atsedena, ariketa fisikoa eta elikadura egokia.
Ea badakien nola lortzen diren landutako elikagaiak.
Ea elikagai multzo nagusiak identifikatzen dituen.
Ea gorputzeko giltzadura nagusiak identifikatzen dituen eta haien mugimendu-funtzioa azaltzen duen.
Ea ulertzen duen norberaren garbitasuna beharrezkoa dela, osasuntsu egoteko eta gaixotasunei aurrea hartzeko.
Ea zentzumen-organoak identifikatzen eta kokatzen dituen.
Ea dieta orekatu batek zer funtsezko ezaugarri dituen badakien.

<b>2. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-1. MAILA</b>
<b>LORPEN-ADIERAZLEAK</b>
Ea gai den animalien kanpotiko itxura eta oinarrizko egitura deskribatzeko, eta ea beren bizi-funtzio batzuk azaltzen dituen.
Ea badakien animaliak elikaduraren eta ugalketaren arabera sailkatzen.
Ea gai den animalia mota bakoitzaren ezaugarriak identifikatzeko, eta ea sailkatzen dituen oinarrizko zenbait irizpideren arabera.
Ea badakien zein diren animalia ornodun mota nagusiak, eta ea gai den haien ezaugarri nagusiak esplikatzeke.
Ea gai den landareen atal nagusiak izendatzeko.
Ea landareak bizi diren ingurunearen eta behar dituzten zainketen arabera sailkatzen dituen.
Ea gai den animalia-espezie batzuk non bizi diren identifikatzeko, haien oinarrizko ezaugarrien arteko desberdintasunak kontuan hartuta.
Ea gai den landareak zertarako erabiltzen diren identifikatzeko eta azaltzeko.

<b>3. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-1. MAILA</b>
<b>LORPEN-ADIERAZLEAK</b>
Ea gai den zenbait motatako materialak identifikatzeko.
Ea materialak jatorriaren arabera (animalietatik, landareetatik, mineraletatik datozen kontuan hartuta) sailkatzen dituen.
Ea gai den inguruan dituen makinak identifikatzeko eta izendatzeko.
Ea gai den zenbait makinak gure eguneroko bizitzari dakarkioten onura nagusiak esplikatzen.
Ea badakien birziklatzea zer den definitzen.
Ea gai den bere eguneroko bizitzan erabili ohi dituen makinaren osagaiak (ordenagailuarenak, adibidez) identifikatzeko, bereizteko eta deskribatzeko.

## 2. MAILA

1. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-2. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEAK
Ea ezagutzen dituen gorputz-atal nagusiak, eta ea sailkatzen dituen horien kokapenaren arabera.
Ea badakien sentitzen duena identifikatzen, eta hitzen eta keinuen bidez adierazten.
Ea hezur eta giltzadura nagusiak identifikatzen eta kokatzen dituen, eta horien funtzioetako batzuk deskribatzen dituen.
Ea identifikatzen eta kokatzen dituen arnasketa-prozesuan eta elikadura- prozesuan parte hartzen duten organo eta gorputz-atal nagusiak.
Ea ezagutzen dituen elikadura osasungarriaren oinarriak eta badakien elikagaiak zer maiztasunekin jan behar diren.
Ea ezagutzen eta izendatzen dituen bost zentzumenak, eta ea badakien egoera bakoitzean zein erabiltzen denesaten.
Ea giharrak identifikatzen dituen. Ea badakien azaltzen giharrek zer ariketetan hartzen duten parte eta nola mugitzen garen.
Ea sailkatzen eta ordenatzen dituen digestio-prozesuaren urratsak, eta ea azaltzen dituen horren oinarrizko funtzioak.
Ea besteen sentimenduak identifikatzen dituen, eta horien lekuan jartzeko eta enpatia sentitzeko gai den.
Ea badakien osasuntsu egoteko hartu behar diren ohitura osasungarriak deskribatzen.

2. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-2. MAILA
LORPEN-ADIERAZLEAK
Ea badakien zer egitura, zer atal eta zer funtzio dituzten landareek.
Ea badakien zer harreman dauden ekosistema bateko kideen artean, eta elikakateak zer diren azaltzen duen.
Ea animalia ornodunei behatzen dien, eta identifikatzen eta deskribatzen dituen, taldeak eta tipologiak kontuan hartuta.
Ea animalia ornogabeei behatzen dien, eta identifikatzen dituen.
Ea identifikatzen dituen zenbait habitat eta ezagutzen dituen ingurune fisiko bakoitzean bizi diren edo bizi daitezkeen izaki bizidunak.

<b>3. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-2. MAILA</b>
<b>LORPEN-ADIERAZLEAK</b>
Ea objektuen materialen propietateei behatzen dien, eta horiek identifikatzen eta deskribatzen dituen.
Ea zenbait esperientzia egiten dituen gorputz batzuen masa eta bolumena neurtzeko, eta objektuen emaitzak konparatzen dituen.
Ea indarren ondorioak interpretatzen dituen, eta indarren eraginpean objektuen mugimendua nola aldatzen den iragartzen duen.
Ea makina motak identifikatzen eta sailkatzen dituen: sinpleak/ konposatuak, eskuzkoak/automatikoak, modernoak/zaharrak, eta energia-iturriaren arabekoak.
Ea materialak sailkatzen dituen, jatorriaren arabera.
Ea material batzuei behatzen dien, eta hotzarekin eta beroarekin haien egoera nola aldatzen den iragartzen duen.
Ea badakien makinak lagungarriak direla atazak egiteko.
Ea balioesten duen zer-nolako garrantzia duten aurrerapen teknologikoek eta gure bizitza nola hobetu duten azaltzen duen.

### 3. MAILA

<b>1. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-3. MAILA</b>
<b>LORPEN-ADIERAZLEAK</b>
Ea gai den giza gorputzaren organoak identifikatzeko, kokatzeko eta deskribatzeko..
Ea badakien gizakiaren funtzio nagusiak azaltzen (nutrizioa, ugalketa eta harremanak), eta horiek elkarrekin erlazionatzen. Ea balioesten duen organismoaren funtzionamendurako zeinen garrantzitsuak diren.
Ea badakien garapenaren aro ezberdinen ezaugarri nagusiak identifikatzen eta azaltzen, bai fisikoak, bai psikikoak, eta baita une bakoitzeko aldaketa-adierazle nagusiak ere.
Ea ulertzen eta balioesten duen garrantzitsua dela elikadura- eta higiene-ohitura osasungarriak hartzea, arriskuak saihesteko eta organismoak ongi funtzionatzeko garapenaren aro guztietan.
Ea identifikatzen dituen hainbat elikagairen mantenu gaiak, dieta orekatu bat egiteko aurreneko urrats bezala.
Ea gai den azaltzeko zertan datzan dieta orekatua eta neurriz egokia dena, adierazteko zer garrantzi duen giza gorputzak ongi funtzionatzeko, eta esateko oreka gutxiko edo neurriz desegokia den dietak zer ondorio dituen.
Ea badakien planak egiten, bere bakarkako eta/edo taldeko aisialdia eta astialdia modu osasuntsu, askotariko eta eskuragarrian programatzeko
Ea ulertzen duen eta azaltzen dakien behar- beharrezkoa dela aisialdi digital eta teknologikoan jarrera neurritsua eta arduratsua izatea.

<b>2. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-3. MAILA</b>
<b>LORPEN-ADIERAZLEAK</b>
Ea ulertzen, identifikatzen eta azaltzen dituen animalien bizi-funtzioak: nutritzioa, harremana eta ugalketa.
Ea badakien animalien oinarriko organoak identifikatzen eta deskribatzen, eta haiek bizi- funtzioekin lotzen.
Ea gai den animalia ornogabeen ezaugarri nagusiak deskribatzeko eta talde horren barruko animaliak identifikatzeko.
Ea gai den animalia ornogabeen hainbat talderen arteko desberdintasunak eta ezaugarriak azaltzeko, eta talde horietan hainbat animalia identifikatzeko eta sailkatzeko, erantzuna arrazoituz.

Ea gai den animalia ornodunen ezaugarri nagusiak deskribatzeko eta talde horren barruko animaliak identifikatzeko, erantzuna arrazoituz.

Ea gai den animalia ornodunen hainbat talderen arteko desberdintasunak eta ezaugarriak azaltzeko, eta talde horietan hainbat animalia identifikatzeko eta sailkatzeko, erantzuna arrazoituz.

Ea badakien azaltzen pertsonen elikaduran, garraioan, jantzietan eta aisialdian animaliek zer onura ekartzen dituzten.

### **3. HIRUHILEKOAREN EBALUAZIOA-3. MAILA**

#### **LORPEN-ADIERAZLEAK**

Ea gai den materiaren propietateak eta egoerak ulertzeko, identifikatzeko eta azaltzeko.

Ea gai den materialen ezaugarriak azaltzeko eta horiek jatorri naturalaren edo artifizialaren arabera sailkatzeko.

Ea badakien lehengaietatik sortutako materialen ekoizpen-prozesuak deskribatzen, eta jarrera egokia duen erabilera eta kontsumo arduratsurako.

Ea ulertzen eta azaltzen dituen materiaren funtsezko aldaketak.

Ea gai den energia forma ohikoenak eta energia-eraldaketak zein diren jakiteko eta deskribatzeko.

Ea gai den energia-iturri berriztagarrien eta berriztaezinen ezaugarriak, horien jatorria eta ekoizpen formak identifikatzeko eta deskribatzeko.

Ea energia-kontsumoari lotutako arriskuak eta ondorioak azaltzen dituen.

Ea badituen energia eta baliabideak modu arduratsuan aurrezteko eta kontsumitzeko jarrerak, eta gai den horiek ulertzeko.

Ea gai den hondakinak murrizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko prozesuak azaltzeko eta balioesteko.